

Intxaurrondo


Birziklatutako artea

Azaroaren 9a arte, Tytti Thusberg-en "Moda biktimak" erakusketa bisita daiteke Zubiaurre pasealekuko Casa del Este aretoan. Tytti finlandiarra da jaiotzez, baina duela zazpi urtetik Donostian bizi da. Bere erakusketak bitxiak dira, birziklatutako materialak erabili ohi ditu eta.

Birziklatutako materialekin lan egiten duzu. Zergatik?

Kontsumismoaren aurkako jarrera da. Etxean gaudenean hamaika objektu ibili ohi ditugu eskuetan, eta ez ditugu kontuan hartzen. Espartzua, yogurt tapak, laranja azalak... Horiek guztiak baliaagarriak dira niretzat. Luze pentsatzen dut, azaldu nahi dudanaren arabera, gauza bat edo bestea aukeratzeko.


Zer nolako harrera izan



ohi dute material birziklatuekin atondutako erakusketak?

Bisitari batzuek ez dute artelanen esanahia ulertzen. Hau da, ez dute ulertzen materialek zer irudikatzen duten. Hala ere, garrantzitsuena zera da: irudipen estetikoa izan dezaten. Alegia, erakusketa bisita dezaten. Horrekin nahikoa dut.

"Moda biktimak" du izen-



buru Intxaurrondoko erakusketak. Zer adierazi nahi duzu izenburu horrekin?

Azkenaldian moda biktima asko dagoela uste dut. Hau da, emakume altuak eta argalak saltzen dizkigute, baina ibiltokietan ikusten ditugun horiek ez dute zerikusirik benetako emakumezkoekin. Jantziekin gauza bera gertatzen da: modeloek erakutsi ohi dituzten jantziak irrealak dira. Izan ere, inork gutxik janzen du ibiltokietako arropa. Bestalde, erakusketa honetan, tratu txarrak pairatzen dituzten emakumeekin gogoratu naiz.

Erakusketan, moda munduak sortutako bikitimez ari zara. Dena dela, zuk modan

«Moda joerak ez ditut gustuko»

jardun duzu, diseinatzailea ere bazara...

Bai, baina joeren aurka nago. Ni artisautza-materialen alde egon naiz betidanik. Luze irauten duten jantziak atsegin ditut. Nik, esaterako, artilea landu dut urte luzez. Artilea, urarekin eta xaboiarekin igurtziz gero, kotoi antzeko zerbait bihurtzen da, iraupen luzekoa. Nik ez dut modaren kontra gogor egin nahi; ikuspuntu ironikoa besterik ez dut azaltzen. Jendeak kontsumitu aurretik gogoeta egin dezan nahi dut.

Ba al da Donostian edo Euskal Herrian moda biktimarik?

Bai, noski. Mendebaldeko beste leku guztietan bezala, denda batzuek berehala saltzen dituzte modatik al gertatzen diren jantziak. Finlandia lekutan dago, baina bertara ere iritsi dira halako ohiturak.

Diseinua eta artea alde batera utzita, Suorritar euskal-finlandiar elkarteko kide zara. Zein ekimen bultzatzen ditu elkarte honek?

Euskaraz, "finlandiarra" ez ezik, "suorritar" hitza ere erabiltzen da Finlandiako herritarrek aipatzeko. Euskal Herrian bizi garen finlandiar edo suorritar batzuek eta finlandiera dakiten euskal herritarrek osatzen dugu elkarte. Zumaiaiko sauna bat da gure egoitza, saunak oso ohikoak baitira Finlandian. Hori bai, ez gara soilik saunan elkartzen; mendi irteerak eta bestelako zenbait ekimen ere egiten ditugu elkartekideok.

